



Arartekoaren 2016R-406-16 Ebazpena, 2016ko irailaren 27koa. Horren bidez, Erandioko Udalari gomendatzen zaio hirigintza-zerbitzuen tasaren zein EIOZren kontzeptupean kexagileari igorritako likidazioak ofizioz baliogabetzea; izan ere, zerga horien zerga-oinarriaren zehaztapena ez dator bat zuzenbidearekin.

Aurrekariak

1. Herritar batek adierazi zuen ez zegoela ados Erandioko Udalak hirigintza-zerbitzuen tasa zein eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga (EIOZ) likidatzerako unean izandako jarduketarekin.

Ukitutako pertsonak alegatu zuen obra txikiko lizentzia emateko eskatu zuela bere etxebizitzan jarritako bainuontzia dutxa batengatik aldatzeko eta, eskaera horretan, aurreratu zuela obra materiala berak egingo zuela. Eskaerarekin batera, tasaren nahiz zergaren kuota kalkulatu ahal izateko, materialengatik ordaindutako faktura aurkeztu zuen, jasandako BEZa kenduz; hau da, 616,79 euro guztira materialengatik.

Erandioko Udalak eskatutako lizentzia eman zion 2015eko urriaren 8an eta abenduan zerga-likidazio bana igorri zizkion: 16,75 euroko bat (zerga-oinarria: 1.648,49 euro; tasa aplikagarria: 0,50) "etxebizitzako lurzorua, bi gelen eta egongelaren konponketaren" hirigintza-zerbitzuengatik tasaren kontzeptupean, eta 82,42 euroko beste bat (zerga-oinarria: 1.648,49 euro; karga-tasa: % 5) EIOZren kontzeptupean, "bainuontzia dutxagatik aldatzeagatik".

Bi likidazioetan zerga-oinarriari esleitutako zenbatekoarekin ados ez zegoenez, 2015eko abenduaren 23an, ukitutako pertsonak berraztertze errekurtso bat aurkeztu zuen egindako bi likidazioen aurka. Halaber, izapidetutako espedienteetan ageri zen dokumentazioaren kopia bat eskatu zuen, igorritako likidazioa ez baitzeturren bat adierazitako zerga-oinarriarekin (616,79 euro), ezta egindako obra zehatzarekin ere; izan ere, tasaren likidazioa "etxebizitzako lurzorua, bi gelen eta egongelaren konponketaren" kontzeptupean egin zen, baimendu eta gauzatu zen obrak etxebizitzako bainugelaren bainuontzia dutxarengatik aldatzea soilik eragin bazuen ere.

Errekurtsoa ezetsi egin zen 2016ko urtarrilaren 21ean, baina ez zen inolako arrazoirik eman zerga-oinarria 1.648,49 eurokoa izateko eta, behar izanez gero, horiei kontra egiteko.

Halaber, adierazi zuen ebazpenak ez ziola berak egindako eskaerari — espedientearen kopia jasotzeari buruzkoari—heldu eta ez zuela argitu zergatik likidatzen zen tasa bat etxebizitzako lurzorua, bi gelen eta egongelaren konponketaren kontzeptupean; ebazpena errekurtsoa ezestera baino ez zen mugatu, honako adierazpen hauek oinarri hartuta:





“AURREKARIAK, Hirigintza Arloari eskatutako txosten berrian Udal Zerbitzu Teknikoek balioztatutako Zerga Oinarria edo Betearazpen Materiala Aurrekontua zuzena dela eta obraren benetako kostua 1.648,49 eurokoa dela adierazten da.

AURREKARIAK, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen 5. Ordenantza Fiskalaren 8. artikulua arabera, zerga-oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da eta ildo honetan benetako kostua hura burutzeko kostua izango da.”

2. Kexa ikusi ondoren, erakunde honek Erandioko Udalaren lankidetzara eskatu zuen eta kexagileari hirigintza-zerbitzuen tasaren nahiz EIOZren kontzeptupean izapidetutako espedienteetarako sarbidea emateko eskatu zion. Era berean, igorritako likidazioak berrikusteko eskatu genuen, baita "etxebizitzako lurzorua, bi gelen eta egongelaren konponketaren" kontzeptupean tasa bat igortzeko arrazoiak argitzeko ere.
3. Erandioko Udalak erantzun zuen hau esanez: EIOZren eta hirigintza-zerbitzuak ematearen kontzeptupean egindako likidazioak *“behar bezala egin dira Hirigintza Saileko Udal Zerbitzu Teknikoek egindako txostena oinarri hartuta”*. Hala eta guztiz ere, ez zen txosten horren kopiarik aurkeztu egiaztatu ahal izateko.

Gainera, toki-erakundeak egindako jakinarazpenean aitortu zuen konpongarria zen akats material bat egon zela, eta horrek hirigintza-zerbitzuak emateagatik tasaren zehaztapenari eragin ziola, bertan, *“bainuontzia dutxagatik aldatzea”* aipatu behar baitzen; halaber, zehaztu egin zen tasa horren zerga-kuota bat zetorrela zerga-ordenantzak ezarritako gutxienekoarekin.

Azkenik, toki-erakunde horrek adierazi zuen interesduna udal horretako Hirigintza Sailarengana zuzendu ahal zela, bertan baitauka eskura espedienteak.

4. Emandako erantzuna ikusi ondoren, erakunde honek Erandioko Udalarira eskatu zion kexagileari espedienteak eskuratu ahal izateari buruzko eskaerari dagokionez hartutako ebazpenaren berri emateko, baita ukitutako pertsonari igorritako bi likidazioei esleitutako zerga-oinarrien edukia berrikusteko ere.

Halaber, administrazio-egintzen arrazoiari buruzko gogoeta batzuk aurreratuko ditugu, baita herritarrek haien errekurtsuetan egiten dituzten eskaeren eta administrazio publikoek hartutako ebazpenen artean dagoen kongruentziari buruzkoak ere.

30/1992 Legearen 54. artikulua haxe ezartzen die administrazio publikoari: *“arrazoitu egin behar dira, egitateen eta zuzenbideko oinarrien aipamen laburra ere eginez”*, besteak beste, administrazio-errekurtsioak ebazten dituztenak. Bestalde, 89. artikulua haxe preskribatzen du: *“errekurtsio-egileak*





eskatutakoaren harikoa izango da ebazpena” (errekurtso-egilea interesduna da) eta “onartutako txostenak edo irizpenak, ebazpenaren testuari eransten bazaizkio, ebazpenaren arrazoitzat hartuko dira”.

Hala ere, kasu zehatz horretan, ez ziren txostenak aurkeztu egindako likidazioaren edo jarritako errekurtsoaren ebazpenaren arrazoi gisa, ukitutako pertsonak egindako errekurtsoan hala egiteko eskatu bazuen ere.

Administrazio-erabakiak ez zeukan herritarrari helarazitako arrazoirik. Erakunde honek ezin zuen likidazioak ondo egin zirenik onartu; izan ere, interesdunak lehenengo unetik jakin behar izan zituen —hau da, likidazioak egin zirenetik— toki-erakunde horren ustetan tasaren zein EIOZren zerga-oinarria 1.648,49 eurokoa izateko arrazoiak, interesdunak deklaratu eta justifikatu zuen bezala 616,79 eurokoa izan ordez; hori guztia obraren egikaritze materialaren kostu gisa.

5. Erandioko Udalak honako hau erantzun zion: *“Zuk aurkeztu duen (...) jaunak eragindako obraren lizentziaren espedienteari dagokion idazkia erantzunez, Eraikin, Instalazio eta Obren Zerga baita Hirigintza Zerbitzuak emateagatik Tasen gaineko eginiko likidazioei buruz interesdunak beharrezko kudeaketak egiteko Sail honetan egon dela adierazi behar dizuegu; hori dela eta espedientea bukatutzat hartzen da. Beste barik.”*

Toki-erakunde horrek emandako egitateen bertsioa kexagileak aurkeztu digunaren desberdina da. Kexagileak aitortu du udal-bulegoetara joan zela Hirigintza Sailarekin hitz egiteko eta bertan esan ziotela hitzordua eskatu behar zuela. Eskaera hori bideratu egin zuen, baina ordu batzuk ondoren telefono-dei bat jaso zuen; horren bidez, jakinarazi zioten ez zela beharrezkoa izango bera jasotzea, likidazioa zuzena baitzen.

6. Kexa honetan, Arartekoak azpimarratu du interesdunek hasieratik, hau da, likidazioak egiten direnetik, ezagutu behar dituztela administrazioaren arabera aitortutako zerga-oinarrietan egin beharreko berrikuspenen arrazoi zehatzak. Berrikuspen hori zilegi da zerga-administratzailearen, baina, betiere, arrazoitua izan behar du. Hori dela eta, obraren espediente horretan, hirugarren informazio-eskaera egin zen Erandioko Udaleko Hirigintza Saileko Udal Zerbitzuek egindako txostenaren kopia eskuratze aldera.
7. Erandioko Udalak Udal Zerbitzu Teknikoek 2015eko urriaren 5ean egindako txostenaren zein Erandio udalerrian eraikuntzen, instalazioen eta obraren gaineko zerga arautzen duen 5. zerga-ordenantzaren kopia bat igorri zuten.

Udaleko erantzunean aditzera ematen da, ordenantza horretako 8.1 artikuluaekin bat etorritik *“la base imponible del impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra y se entiende por tal, a estos efectos, el coste de ejecución material de aquélla”.*





Azkenik, zerga-oinarriaren zehaztapenari dagokionez, hirigintza-txostenak bere 11. baldintza orokorrari heltzen dio, honako hau dioena, hitzez hitz: *“A efectos de aplicación de tasas el presupuesto de ejecución material descrito asciende a la cantidad de (746,32 materiales + 912,49 € mano de obra) 1.648,49 €.”*

Gogoetak

1. Herritarraren kexa honen xedea hau da: Erandioko Udalak obren espediente horretan bai EIOZren bai hirigintza-zerbitzuak emateagatiko tasaren zerga-oinarria 1.648,49 eurokoa dela nola ondorioztatu duen jakitea eta, bereziki, Hirigintza Saileko Udal Zerbitzuek egindako txostena eskuratu ostean, honako hau dioena: *“A efectos de aplicación de tasas el presupuesto de ejecución material descrito asciende a la cantidad de (746,32 materiales + 912,49 € mano de obra) 1.648,49 €.”*. Horretarako, funtsean, bi dira aztertu beharreko kontuak: toki-erakunde horrek zer balorazio-irizpen erabili dituen eskulanak 912,49 euro balio duela ezartzeko eta likidazio horien zerga-oinarriak materialengatik ordaindutako BEZa barne hartu behar duen ala ez ezartzeko.

Hau da, eztabaida ez da zerga-administrazioak herritarrek deklaraturako zerga-oinarria egiazta eta berrius dezakeen zehazteari buruzkoa —erantzuna baiezkoa dela aurreratu genuen arren—, baizik eta berriuspen horrek, zuzenbidearekin bat etortzeko eta, horrenbestez, zergadunari defentsa-gabeziarik ez eragiteko, zer berme eskaini behar duen zehaztearen ingurukoa. Hori egin ahal izateko, igorriko den likidazioak zergadunari arrazoiekin horri kontra egitea ahalbidetzeko eskatzen du. Horretarako honako hau eskatzen du: lehenik eta behin, herritarrak hasieratik hori eskuratzeko aukera izatea eta, bigarrenik, eskuratzeko hori zerga-administrazioak zenbateko hori zehazteko jarraitu dituen irizpide zehatzak ezagutze aldera egitea. Ezin daiteke albo batera utzi zerga-administratori dagokiola zuzenbidearekin bat etortzea likidazioak egiteko unean eta behar bezala arrazoitu behar dituela.

2. Erandioko Udaleko 11. zerga-ordenantzak hauxe arautzen du: *aurretiazko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena eta lizentzia eskatzen duten obrak edo hirigintzako jarduerak direla eta zerbitzuak eman ondoren udalak kontrol-jarduera egiteagatik ordaindu beharreko*” udal-tasa bat ezartzen du zerbitzu horiek emateagatik, eta bere zenbatekoa honakoa izango da: *“eraikuntza, instalazio edo obraren benetako kostuaren % 0,5; benetako kostua hura burutzeko kostua izango da”*. Hala eta guztiz ere, tarifak aplikatzeko dituen arauetan hau dio: *“betiere, likidazioaren gutxienekoa honakoa izango da: 16,75 euro”*.

Aldi berean, 5. zerga-ordenantzak eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga arautzen du. Arau zehatz horren 8. artikulua zerga horren zerga-oinarria zehazten du honako baldintzetan:





"1.- Zerga-oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da; benetako kostua hura burutzeko kostua izango da.

Ez dira sartuko zerga-oinarrian ez balio erantsiaren gaineko zerga, ez araubide bereziko antzeko gainerako zergak, ez tasak, ez prezio publikoak, ez eraikuntza, instalazio edo obrarekin zerikusia duten ondarearen gainerako toki-prestazioak, ez profesionalen ordainsariak, ez kontratistaren industria-mozkina, ez burutzapen materialaz kanpoko gainerako kontzeptu guztiak.

2. - Udal-lizentziarik gabeko eraikuntza, instalazio nahiz obraren kasuan, udal-administrazioak ezarritakoa izango da zerga-oinarria".

11. artikulua EIOZren kudeaketari buruzkoa da, eta hauxe adierazten du:

"Udalak konturako behin-behineko likidazioa egingo du honako kasu hauetan: aginduzko lizentzia ematen denean, erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa egiten denean, eta, baita, eskaerarik egin barik, edo erantzunik jaso barik, edo eskaeraren ezezko erantzuna jaso ondoren eraikuntza, instalazioa edo obra egiteari ekiten zaionean. Udalak interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera zehaztuko du zerga-oinarria, baldin eta elkargo ofizial eskudunaren ikus-onetsia badu; horrela ez denean, udal-teknikariek ezarriko dute zerga-oinarria, proiektuaren kostu zenbatetsiaren arabera".

Adierazi den bezala, igorritako likidazioa Udal Zerbitzu Teknikoen 2015eko urriaren 5eko txostenak zehazten duen zerga-oinarriarekin egin da; txostenak honakoa dio: *"A efectos de aplicación de tasas el presupuesto de ejecución material descrito asciende a la cantidad de (746,32 materiales + 912,49 € mano de obra) 1.648,49 €."*

Zerga-administrazioak eskumena dauka EIOZren zerga-oinarria zehazteko proiektuaren kostu zenbatetsiaren arabera. Dena den, likidazioak ezin du arbitrarioa izan eta, horrenbestez, behar bezala arrazoitu behar da; horrek obraren balio erreala zehazteko erabilitako irizpenak adieraztea hartzen du barne. Hau da, likidazioa nola zehaztu den eta administrazioak hori zehazteko erabili dituen irizpideak zehaztu behar dira; hori guztia subjektu pasiboak ezagutu ditzan eta, hala badagokio, ados ez badago errekurtsioa jarri ahal izateko.

Kasu honetan, bereziki beharrezkoa da adieraztea eskulana nola zehaztu den 912,49 eurotan, ukitutako pertsonak ez baitzuen partida hori barne hartzen zuen obra-proiekturik aurkeztu, eta lizentziaren eskaeran obra berak gauzatuko zuela aurreratu baitzuen.

Halaber, aintzat hartu beharra dago Erandioko EIOZ arautzen duen zerga-ordenantzaren 8. artikulua zerga horren zerga-oinarrian zer partida dagoen zehazten duela; gainera, honakoa adierazten du: *"ez dira sartuko zerga-oinarrian ez balio erantsiaren gaineko zerga, ez araubide bereziko antzeko gainerako zergak, ez tasak, ez prezioak [...]".* Hala ere, likidazioak aintzat





hartzen duen materialen kostuak zergadunak kitatutako BEZaren zenbatekoa hartzen du barne. Zehazki, udal-likidazioan partida hori 746,32 eurotan zehazten da eta eskuratutako materialengatik aurkeztutako fakturak, 746,32 eurokoa izan bazen ere, ordaindutako BEZa hartzen du barne —kasu zehatz honetan, 129,53 eurokoa—. Adierazi den bezala, zerga-oinarriaren parte izan beharko ez lukeen partida bat da.

3. Likidazioa ez bada arrazoitu —eskulanari dagokionez, bere kostuaren 912,49 euroko zenbatespena baino ez du jasotzen, horri babesa ematen dion justifikaziorik gabe—, ezin dugu onartu likidazioak zuzenbidearekin bat etorri zirenik Administrazioak egindako balorazioa arrazoitu behar izan zuelako; hau da, eskulanaren kostua zenbateko horretan finkatzeko izan zuen arrazoa zehaztu behar izan zuelako.
4. Ondorioz, inolako beste azalpenik eman gabe, ezin dugu ondorioztatu eskulanaren kontzeptupean 912,49 euroko zenbatekoa prezio orokorrean esleitzeak administrazio-egintza batek izan behar duen aginduzko arrazoiari edo justifikaziori erantzuten dionik; izan ere, erantzunik gabe jarraitzen du ondorio horietarako garrantzitsua den kontuak —eskulanari, esaterako, 500 euro, 354,87 euro edo 6.498,03 euroren ordeztu, 912,49 euroko zenbatekoa esleitu izanaren zergatiari buruzkoak, hain zuzen—.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako gomendioa egiten da:

Gomendioa

Erandioko Udalak kexagileari hirigintza-zerbitzuen tasaren zein EIOZren kontzeptupean igorritako likidazioak ofizioz baliogabetzea, eskulanaren kostua benetako kostutzat hartu zuen zenbatekoa ez duelako behar bezala arrazoitu eta zerga-oinarriari BEZaren kontzeptupean ordaindutako zenbatekoak gehitu dizkiolako.

Erandioko Udalak beste likidazio batzuk egitea hirigintza-zerbitzuen tasaren zein EIOZren kontzeptupean, zuzenbidearekin bat datozenak.

